

STM

San Telmo Museoa

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

HERIOTZA.
FACE À LA MORT

HERIOTZA.
FACING DEATH

Erakusketa / Exposición
Exposition / Exhibition

2019-03-13 // 2019-05-26

San Telmo
Museoa

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa

Antolatzaile / Organiza:



Erakunde babesleak / Instituciones socias:

Patrono pribatuak / Patronos privados:

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 580 E. santelmo@donostia.eus
www.santelmomuseoa.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

Ez da erraza heriotzari buruz hitz egitea. Ez norberarenari, ez besterenari buruz. Izan ere, espezialistaren batek esan izan du gure mundu garaikidean heriotza sexuaren ordezkotzat iritsi dela, tabuzat hartuta. Heriotzari buruz hitz egitean erakarri egingo bagenu bezala. Antza, aurrerapenen garaian ez dugu onartzen heriotzak giza arrazoibidearen mendean etxekotzeari uko egitea. Eta horregatik, heriotzari buruz hitz egitea saihesten dugu; beste alde batera begiratzen dugu.

Ez da erraza heriotzari buruz hitz egitea. Heriotzaren aurrean, hainbat tradizio eta aurre egiteko hainbat modu aurki daitezke, askotariko esperientzia pertsonal –ez gutxi– mingarri eta traumatikoak, galera-sentimenduak, beldurrak (ziurgabetasunaren, sufrimenduaren... aurrean); beraz, gaia kontu handiz eta errespetu biziz landu behar da.

Ez da erraza heriotzari buruz hitz egitea. Eta, alabaina, ez dago gairik hau bezain muturreko eta unibertsaltiki gizatiarra denik. Horregatik, gure historiaren hasiera-hasieratik daukagu ondoan, eta lehen giza arrastoak hileta-errituekin edo heriotzaren irudikapenekin lotuta daude. Horregatik, heriotzaren aurreko beldurra gizartearen diziplinatzeke modutzat baliatu izan dute mota orotako botereek. Horregatik, gure fantasien munduan ere, heriotza edo hildakoak (fantasmak, zonbiak, espirituak...) behin eta berriz agertzen dira. Horregatik, zientzia modernoaren gairik gogokoenetako bat bizitza luzatzea da, baita hilezkortasuna lortzeko aukera ere.

Ez da erraza heriotzari buruz hitz egitea. Eta, horregatik, ez dugu adiera bakarreko erantzunik bilatuko, eta ez dugu esango tradizio mota bat beste baten gainetik dagoela egiazkotasunari, prebalentziari, komenigarritasunari edo lehentasunari dagokienez. Ezta arazoa lantzeko edo arazora hurbiltzeko moduren bat, bizitzaren eta heriotzaren zentzuari –edo heriotzaren ondoren bizitzarik izateko aukerari– buruzko sinesmenen bat beste baten gainetik dagoenik ere.

Ez da erraza heriotzari buruz hitz egitea. Baina bai jakin nahi dugu heriotza nola irudikatu izan dugun eta zer errituz inguratu dugun. Batzuetan heriotzara beldurrez eta larritasunez zergatik hurbiltzen garen ulertu nahi dugu, baina beste batzuetan festaren eta fantasiaren bitartez. Tradizio erlijiosoek heriotzaz haratago joateko zer proposamen egin dizkiguten jakin nahi dugu, baita zientziak heriotza nola borrokatzen duen eta nola gainditu nahi duen ere. Hausnarketa sustatu nahi dugu, hainbat hurbilketa zentzua ulertu, geure ikuspegia bera aberasteko. Horretarako, ezinbestekoa da heriotzari buruz hitz egitea.

Hitz egin dezagun heriotzari buruz...

Martxoaren 13tik maiatzaren 26ra bitarte, San Telmo Museoa Heriotza. Ante la muerte erakusketa aurkezten du.

San Telmo Museoa antolatu eta ekoiztutako proiektua da, eta museoa eta Deustuko Unibertsitateko José Ángel Achón katedraduna izan dira komisariokideak.

Museoa hileta-munduarekin zerikusia duten objektuen bilduma zabala eta askotarikoa du bere funtsetan, eta objektu horietako batzuk oso bereziak dira gainera. Hori izan zen proiektu honen abiapuntua, kontuan hartuta etnografia bilduma garrantzitsua dela San Telmorena, betidanik euskal kulturaren eta museoaren adierazgarritzat jo izan dena.

Ondare propio horretan sakontzeko eta ezagutzera emateko hasierako interes horretatik abiatuta, proiektua hazten hasi zen. Hasieratik bat egin zuen proiektuarekin Gordailuak, Gipuzkoako Ondare Higigarriaren Zentroak. Bertan gordetzen dira museoaren funtsak eta horrela beste ondare batzuk ere gehitu zitzaizkion, bereziki aipagarriak arkeologia atalarekin zerikusia dutenak. Horrela, erakusketaren ibilbidean Gordailuak gordetzen dituen pieza ezberdinak ikus daitezke.

Aranzadi Zientzia Elkartek ere egin zuen proiektuarekin bat, batzar zientifikoan parte hartuz eta muntaketa lanei dagokienez atal batean lagunduta; eta Deustuko Unibertsitateko J.Á. Achón katedradunak ere, komisariotza lanetan museoarekin bat egin zuen.

Bestalde, proiektuaren garapenean aurrera egin ahala, beste hainbat museo eta bildumatako eta artxibo eta liburutegitako lanekin aberastu da erakusketa, gaur egungo artisten ekarpena ahaztu gabe.

Heriotza. Ante la muerte erakusketak heriotzaren inguruko kultura materialaren aniztasun eta aberastasunak agerian jartzen ditu, garai eta toki guztietako gizakiontzat zenbaterainoko garrantzia duen azalduz eta heriotza ulertzeko eta hari aurre egiteko hainbat moduren berri emanez. Erakusketa sei ataletan antolatuta dago, gizakiak heriotzaren aurrean izan dituen eta dituen jarrerak kontuan hartzen dituztenak. Hauek jorrazteko, munduko kultur ezberdinetan jatorria duten askotariko objektuak daude: errituekin, sinesmenekin edo ohiturekin lotutakoak; argazkiak; dokumentuak; ikus-entzunezkoak; koadroak; komikiak; eta abar.

Guzti hauek, gainera, bilduma ezberdinetatik datoz, bai bilduma partikularrak, bai eta erakunde ezberdinetakoak:

Ama Xantalen ermita, Irun
Arantzazu Santutegia
Baionako Euskal Museoa
Donostiako Udal Artxiboa
Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa, Vitoria-Gasteiz
Euskal Museoa, Bilbao
Eusko Jaurlaritza
Fundación EFE
Gabriela Cendoya Bergareche Collection
Gipuzkoako Artxibo Orokorra
Gipuzkoako Foru Aldundia
Jorge Oteiza Fundazio Museoa, Altzuza (Nafarroa)
Koldo Mitxelena Kulturunea
Museo Arqueológico Nacional, Madril
Museo de Bellas Artes, Sevilla
Museo de Huesca
Museo del Romanticismo, Madril
Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madril
Museo Nacional de Antropología, Madril
Museo Nacional del Prado, Madril
Museo Universidad de Navarra
Museu Egipcio Barcelona. Fundació Arqueològica Clos

Halaber, artista hauen lanak ere badaude erakusketan:

Barbara Stammel
Fernando Beorlegui
Javier Pérez
Javier Viver
José Zugasti
Lucía Vallejo
Rosa Valverde

ERAKUSKETAREN ATALAK

IRUDIKATU

Hiltzea gizartearen eta kulturaren arloko gertakari bat da, eta gertakari horren inguruan, giza talde bakoitzak sinesmenen eta balioen sistema bat eratzen du, betiere denboraren, tokiaren eta kulturaren arabera aldatzen dena. Batzuek heriotza amaiera dela pentsatzen dute, gauza guztien akabera; beste batzuek heriotzaren ondoren zerbait badagoela uste dute. Bi pentsamolde horien artean aukera ugari daude. Hori horrela dela, kultura askotan, errituen bitartez eta kultura material zabal eta aberats baten bitartez, zera helarazi digute, heriotza ez dela gauza guztien erabateko eta atzeraezineko amaiera, baizik eta bizitzak edo existentziak beste munduan ere jarraituko lukeela. Beste mundu horretan leudeke gure arbasoak, eta gu, modu batera edo bestera, arbaso horiekin loturik egongo ginatke; gainera, agian, gure bizitzetan eragina ere izan dezakete.

BELDURRA

Agian, heriotzaren aurreko erreakziorik unibertsalena angustia edo larritasuna da; larritasun hori, maiz, beldur bihurtzen da, dela heriotzarekiko berarekiko, dela gertuko baten heriotzarekiko beldur. Hasiera-hasieratik, gizakiak erantzunak bilatu izan ditu beldur horren aurrean. Mitoek irakatsitakoaren arabera, funtsean, heriotza bizitzaren amaiera baino gehiago, bizitzeko moduaren aldaketa da. Platonek zioen filosofoa dela arterik zailena ikasi duena, hau da, hiltzen ikasteko artea. Montaignek benetako askatasuna gaitasun batekin lotzen zuen: heriotzarekiko beldurra burutik kanporatzeko gaitasunarekin. Une erabakigarriari duintasunez eta adoretz aurre egiteko eta beldurra gainditzeko gaitasuna gure historiako heroi edo pertsona ospetsuen ezaugarria izan da; esate baterako, Sokrates. Beldurra eta larritasuna etengabe agertu izan dira, baina ez dira beti modu berean azaleratu: batzuetan, beldurra izu bihurtzen da; besteetan, harritu egiten gara gure arbasoak heriotza etxekotzat zutela bizi zirela ikusita. Eta gaur, heriotzarekiko beldurak heriotzari buruz hitz egitea ere eragozten digu... Tabua al da, egun, heriotzari buruz hitz egitea?

ERRITUALA

Gizakiak prozesu bat ordenatu behar izan duenean, bereziki nekeza baldin bazen edo arrisku eta ziurgabetasunez inguratuta bazegoen, prozesu hori erritualizatu edo instituzionalizatu egin du. Zerbait erritualizatu eta instituzionalizatzen dugunean, denboran eta espazioan finkatu egiten dugu, gizatiartu egiten dugu, habitus edo ohitura bihurtzen dugulako: ohitura aldizka errepikatzeaz gain, aurrez finkatutako arauen arabera da.

Ziurgabetasunez inguratutako giza prozesuren bat baldin badago, heriotzaren prozesua da hori; horregatik, gure hildakoak zeremonia solemneagoen bitartez agurtzera behartuta gaudela iruditu izan zaigu. Erritual horiek lurreko munduaren eta mundu sakratu edo ezezagunaren arteko bitartekaritza-lana egiteko saiakera bat izaten dira beti, hildakoari bere bidean laguntzeko ahalegina. Gorputza gordetzeko errituak, arima askatzekoak, dolua adieraztekoak edo hildakoa gogoratzeko errituak kultura eta garai guztietan egon dira, baita gaur egun ere, sentsibiltate berrietara egokituta betiere.

ZENTZUA BILATZEA

Prozesua erritualizatzeak eman diezagukeen segurtasuna segurtasun, heriotza gauza ezezagunen espazioan sartzen da, definizioz, esperientziarik ez dugun horren espazioan, joan ondoren itzuli eta horren berri kontatzeko aukerarik ez duen horren espazioan; azken batean, ziurgabetasun gorenaren espazioan. Horregatik, beste gai nagusietako bat zentzua bilatzearena da; heriotzaren zentzua bilatzea, bizitzaren zentzua bilatzearen baliokidetzat har daitekeena: nire bizitzak ba al du zentzurik, desagertu egiten banaiz? Nola presta naiteke une horretarako? Nola hil duintasunez? Moduren batera iraun al dezaket —nahiz eta fisikoki ez izan— nire ekintzen edo uzten dudaren bitartez? Zer esan nahi du berpizteak? Heriotzaren ondoren ba al dago ezer? Interesagarria da tradizio erlijiosoek emandako erantzunak alderatzea eta heriotzaren mugez haratago joateko egin dituzten proposamenak zeintzuk izan diren ulertzea. Sinesmen erlijiosoetan, jende askok bizitzari eta heriotzari zentzua emateko gida baliotsuak aurkitu izan dituzte eta aurkitzen dituzte. Beste pertsona batzuentzat, erantzun horiek ez dira nahikoa: espiritualtasun berriak bilatu beharko lirakeke, naturara berriz itzultzearekin lotutakoak, edo argudio zientifikoei lehentasuna eman beharko litzaike, bestela. Eztabaida mahai gainean dago.

HERIOTZATIK ITZULTZEA

Heriotzaren “zentzua” zein den galdetzeak eta heriotzari aurre egiteko prestatzeak esan nahi du heriotzari “aurrez aurre” begiratu behar zaiola, errealista izanik, eta hori ez da ez errazena izaten, ezta ohikoena ere. Izan ere, heriotzari begiratzeko beste modu bat fantasiaren bitartez egitea da. Horregatik, hildakoak “itzultzeko” aukera ireki da, eta topiko bihurtu ere egin da mota guztietako kontakizunetan; horrela, bada, gure irudimena gaur egungo adierazpen artistikoetan —zineman, komikietan, eta abar— agertzen diren espiritu, zonbi eta alegiazko bestelako izakiz betetzen da. Bestela, heriotzaren eta hildakoen inguruan ospakizun jendetsuak egiten dira, herrifesta bihurtzera ere iritsi direla, jatorria oso argi ez duen sinbolismoz inguratuta. Eta horregatik daude askotariko herri-sinesmenak eta herri-sineskeriak, betiere helburu izanik hildakoari errealitatetik ezezaguna den mundu horretarako muga zeharkatzen laguntzea, edo “espiritu gaiztoek” alderantzizko bidea egin dezaten saihestea.


UTOPIAK

Utopia guztiek dute fantasia apur bat, baina legendak eta izaki ezinezkoak ez bezala, utopiak etorkizuneko proiektzioak dira, kasu gehienetan oinarri zientifikoa dutenak edo oinarri hori izan nahi zutenak. Noski, une bakoitzean zientifikotzat jotzen den horren arabera. Eta utopietan utopiana, zalantzarik gabe, hilezkortasuna lortzeko nahia da. Kontzeptu horrek izan ditzakeen zehaztapen metaforikoenak alde batera utzita, gure kasuan pertsonaren hilezkortasun fisiko eta materialaz ari gara, pertsona osotasuntzat hartuta, dela gorputz, dela alderdi intelektual nahiz espiritual. Bilaketa horrek ibilbide historiko luzea du, baina gaurkotasuneko gai izaten da beti. Dagoeneko, gure utopia ez da bideratzen Grial Santuaren edo Filosofia-Harriaren bilaketaren bitartez, medikuntzaren eta teknologiaren arloetako aurrerabideen bitartez baizik.

Ziurrenik, luzaro bizitzeko eta erabateko gaitasun fisikoei eusteko gure itxaropenak irrika bizia eragingo lioke garai batean betiko gazte izateko bidea bilatu nahi zuen edonori, baina guretzat hori jada ez da aski. Gaur egun, hilezkortasuna lortzeko edo norbanako baten bizitza mugagabe luzatzeko aukera zientifikoa aipatzen da esanbidez, berrikuntza bioteknologikoko prozesuei

esker. Horrek guztiak itxaropen berriak sorrarazten dizkigu, baina baita eztabaida etikoak ere, giza bizitzaren kontzeptua bera eraginpean hartuko luketen inplikazioei buruz.

KATALOGOA



HERIOTZA.
ANTE LA MUERTE

San Telmo Museoa

Erakusketa zabaltzearekin batera katalogoa ere argitaratu du museoak.

Bertan J.Á. Achón; Lourdes Herrasti eta Francisco Etxeberria; Juanjo Madariaga; Iñaki Olaizola; Alfonso Pérez-Agote; eta Arantza Etxeberriaren testuak daude.

243 orr.

21 x 24 cm.

20 euro

JARDUERAK

Erakusketak irauten duen bitartean, jarduera programazio zabala prestatu dugu, gaiaren alderdi ezberdinei heltzeko aukera emango digutenak, hainbat hitzaldi, mahai inguru tailer eta bestelakoekin, publiko ezberdinei zuzenduta. Elkarte eta adituekin batera osatu dugu programazio hau.

Eskolentzako ere eskaintza osatu dugu, eta bisita eta bisita-tailerrak egin daitezke, eta baita propio sortutako maleta didaktikoa erabili:

“Heriotza egunerokoan...” maleta didaktikoa

Heriotzaren gaiaren inguruan hausnartzeko maleta didaktikoa prestatu dugu irakaslegoarentzako gida didaktikoa eta baliabide ezberdinez osatutakoa. Maleta irakasleek bere kabuz edo museoko hezitzaileekin erabili ahal izango dute.

Bizitza eta heriotzaren arteko bidaia hau egiteko bidelagun izango ditugu erakusketako hainbat objekturen argazkiak, postalak, panpinak, olerkien liburuxka, kromoak, jokoak, e.a.

Irakaslearen gidan aurreikusten dira eskolan, museora etorri aurretik eta ondoren, egiteko hainbat jarduera.

Erakusketa amaitu eta gero, ekainean, eskoletan heriotzaren inguruan egindako lanen emaitzak ikusgai jarriko dira Hezkuntza tailerlean.

Ikus dosierraren bukaeran programa osoa.

STM

San Telmo Museoa

12544n |

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 580 E. santelmo@donostia.eus
www.santelmomuseoa.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

No es fácil hablar de la muerte. Ni de la propia, ni de la de otros. De hecho, algún especialista ha llegado a afirmar que en nuestro mundo contemporáneo la muerte ha sustituido al sexo como tabú. Como si al hablar de ella la convocásemos. Parece que en la era del progreso no aceptamos que la muerte se resista a ser domesticada por la razón humana. Y por ello evitamos hablar de ella; miramos hacia otro lado.

No es fácil hablar de la muerte. Ante ella se convocan diferentes tradiciones y maneras de afrontarla, múltiples experiencias personales –no pocas– dolorosas y traumáticas, sentimientos de pérdida, miedos (a la incertidumbre, al sufrimiento...) que obligan a tratar el tema con extraordinaria cautela y respeto.

No es fácil hablar de la muerte. Y, sin embargo, no hay cuestión más radical y universalmente humana que esta. Por eso, nos acompaña desde el comienzo de nuestra historia y los primeros restos humanos nos hablan de ritos funerarios o de representaciones de la muerte. Por eso, el miedo a la muerte ha sido manejado por poderes de todo tipo como forma de disciplina social. Por eso, incluso en el mundo de nuestras fantasías, la muerte o los muertos (fantasmas, zombis, espíritus...) son un tema recurrente. Por eso, uno de los temas favoritos de la ciencia moderna es la prolongación de la vida e, incluso, la posibilidad de alcanzar la inmortalidad.

No es fácil hablar de la muerte. Y, por ello, no buscaremos respuestas unívocas, ni afirmaremos la veracidad, prevalencia, conveniencia o prioridad de ningún tipo de tradición sobre otra. Tampoco de ninguna forma de acercamiento o tratamiento del problema, ni de ninguna creencia sobre el sentido de la vida y de la muerte –o de la posibilidad de vida después de la muerte– sobre otra.

No es fácil hablar de la muerte. Pero sí queremos saber cómo la hemos representado y de qué ritos la hemos rodeado. Queremos comprender por qué nos acercamos a ella a veces con angustia y miedo, pero otras veces a través de la fiesta y de la fantasía. Queremos conocer cómo las distintas tradiciones religiosas nos han propuesto trascender la muerte y también cómo la ciencia lucha contra ella e incluso se propone vencerla. Queremos promover la reflexión, comprender el sentido de diferentes acercamientos para enriquecer nuestra propia mirada. Para ello, es imprescindible hablar de la muerte.

Hablemos de la muerte...

El Museo San Telmo presenta la exposición Heriotza. Ante la muerte, del 13 de marzo al 26 de mayo.

Se trata de un proyecto organizado y producido por el propio San Telmo, que también se ha encargado de su comisariado junto con José Ángel Achón, catedrático de la Universidad de Deusto.

El punto de partida fue la extensa y variada colección de objetos relacionados con el mundo funerario que el museo conserva en sus fondos y la singularidad de algunos de ellos; se trata de una importante colección de carácter etnográfico, reconocida históricamente como representativa tanto de la cultura vasca como del propio museo.

Desde este interés inicial en profundizar y dar a conocer este patrimonio propio, el proyecto comenzó a crecer, sumándose ya desde el inicio al proyecto Gordailua, Centro de Patrimonio Mueble de Gipuzkoa, lugar donde se conservan las colecciones del museo, a las que así se añadían otros patrimonios, especialmente significativos en cuanto a piezas arqueológicas. De esta forma, a lo largo del recorrido de la exposición se muestran diversas piezas custodiadas en Gordailua.

Igualmente se incorporan la Sociedad de Ciencias Aranzadi, participando en el comité científico y posteriormente en el montaje de una de las áreas de la exposición, y J. Á. Achón, catedrático de la Universidad de Deusto, en el comisariado de la muestra.

Heriotza. Ante la muerte se ha enriquecido asimismo con las aportaciones de otros museos y colecciones, así como de archivos y bibliotecas, sin olvidar el arte contemporáneo.

Esta exposición muestra la variedad y riqueza de las culturas materiales relacionadas con la muerte, evidenciando la importancia de este fenómeno para todas los seres humanos de cualquier época y lugar y las diferentes maneras de enfrentarse a él. Está estructurada en seis ámbitos, que atienden a las actitudes que el ser humano ha tenido y tiene ante la muerte. En ella se han reunido piezas procedentes de distintas culturas: objetos relacionados con ritos, creencias y costumbres; fotografías; documentos; audiovisuales; cuadros; cómics; etc.

Todos ellos proceden además de diversas colecciones, tanto particulares como de instituciones:

Arantzazu Santutegia
Baionako Euskal Museoa / Musée Basque et de l'Histoire de Bayonne
Donostiako Udal Artxiboa / Archivo Municipal de San Sebastián
Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa / Museo Diocesano de Arte Sacro, Vitoria-Gasteiz
Ermita Ama Xantalen, Irun
Euskal Museoa / Museo Vasco, Bilbao
Eusko Jaurjaritza / Gobierno Vasco
Fundación EFE
Fundación Museo Jorge Oteiza, Altzuza (Nafarroa)
Gabriela Cendoya Bergareche Collection
Gipuzkoako Artxibo Orokorra / Archivo General de Gipuzkoa
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
Koldo Mitxelena Kulturunea
Museo Arqueológico Nacional, Madrid
Museo de Bellas Artes, Sevilla
Museo de Huesca
Museo del Romanticismo, Madrid
Museo Nacional de Antropología, Madrid
Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid
Museo Nacional del Prado, Madrid
Museo Universidad de Navarra
Museu Egipci Barcelona. Fundació Arqueològica Clos

Asimismo, la exposición muestra obras de los/as siguientes artistas:

Barbara Stammel
Fernando Beorlegui
Javier Pérez
Javier Viver
José Zugasti
Lucía Vallejo
Rosa Valverde

ÁMBITOS DE LA EXPOSICIÓN

REPRESENTAR

Morir es un hecho social y cultural en torno al cual cada grupo humano constituye un sistema de creencias y valores que varía en función del tiempo, lugar y cultura. Entre quienes piensan que la muerte es el final de todo y quienes creen que hay algo después de ella, se abre un amplio abanico de posiciones. Así, muchas culturas, mediante diferentes prácticas rituales y una extensa y rica cultura material, nos han ido transmitiendo que la muerte no constituiría el fin absoluto e irrevocable de todas las cosas, sino que la vida o la existencia proseguirían en el más allá. Un más allá donde descansan los antepasados a quienes, de alguna manera, seguiríamos unidos y que, quizá, todavía podrían intervenir en nuestras vidas.

MIEDO

Quizá la reacción más universal ante la muerte sea la angustia; una angustia que frecuentemente se transforma en miedo, ya sea a la muerte propia o a la de un ser querido. Desde un principio, el ser humano ha buscado respuestas a ese miedo. Los mitos nos enseñaban que, en el fondo, la muerte no era la extinción de la vida, sino un cambio en la forma de vida. Platón afirmaba que filósofo era aquel que había aprendido el arte más difícil, el de aprender a morir. Montaigne asociaba la verdadera libertad con la capacidad de expulsar de la mente el temor a la muerte. La capacidad de superar ese miedo y de enfrentarse al momento crucial con coraje y dignidad ha sido siempre una característica asociada al heroísmo o a las personalidades más notables de nuestra historia, como Sócrates. Miedo y angustia han sido unas constantes, pero no siempre se han manifestado de la misma forma: a veces el miedo se convierte en terror; en otras ocasiones, la familiaridad con la que nuestros antepasados convivían con la muerte nos sorprende. Y hoy, el miedo a la muerte nos impide incluso hablar de ella... ¿es hoy la muerte un tema tabú?

RITUAL

Cuando el ser humano ha necesitado ordenar un proceso, particularmente cuando se le hacía penoso o estaba rodeado de peligros e incertidumbres, lo ha ritualizado o institucionalizado. Al ritualizar o institucionalizar algo lo fijamos en el tiempo y en el espacio, lo humanizamos, porque lo convertimos en un habitus o costumbre que se repite y que responde a unas normas preestablecidas.

Si hay un proceso humano rodeado de incertidumbre, este es el de la muerte y, por ello, despedimos a nuestros muertos por medio de las ceremonias más solemnes. Estos rituales siempre suponen un intento de mediación entre el mundo terrenal y lo sagrado o lo desconocido, un intento de acompañar en su tránsito a quien nos deja. Ritos para guardar el cuerpo, para liberar el alma, para manifestar el duelo o para recordar a la persona fallecida han existido en todas las culturas y tiempos y permanecen hoy, adaptados a las nuevas sensibilidades.

BÚSQUEDA DE SENTIDO

A pesar de la seguridad que nos pueda proporcionar la ritualización del proceso, la muerte ocupa por definición el espacio de lo desconocido, de aquello de lo que no hay experiencia, de donde no se puede volver para contarlo; en suma, el espacio de la máxima incertidumbre. Por eso, otra de las cuestiones centrales es la búsqueda de sentido. Del sentido de la muerte, que es tanto como decir del sentido de la vida: ¿tiene mi vida sentido si voy a desaparecer? ¿cómo prepararme para ese momento? ¿cómo morir con dignidad? ¿puedo permanecer de alguna manera —aunque no sea físicamente— a través de mis actos o de lo que dejo? ¿qué significa resucitar? ¿hay algo después de la muerte? Es interesante comparar las respuestas de las diversas tradiciones religiosas y comprender cuáles han sido sus propuestas para trascender los límites de la muerte. En las creencias religiosas muchas personas han encontrado y encuentran guías valiosas para dar sentido a la vida y a la muerte. Para otras, esas respuestas serían insuficientes: habría que buscar nuevas espiritualidades como las relacionadas con la vuelta a la naturaleza o priorizar los argumentos científicos. El debate está servido.

VOLVER DE LA MUERTE


Preguntarse por el “sentido” de la muerte y prepararse para afrontarla implica mirarla “cara a cara” y con realismo, lo cual no es ni lo más fácil ni lo más frecuente. De hecho, otra manera de mirar a la muerte es hacerlo a través de la fantasía. Por eso, la posibilidad de que los muertos “vuelvan”, se ha convertido en un tópico de todo tipo de relatos que siembran nuestra imaginación de espíritus, zombis y otros seres de leyenda recogidos en manifestaciones artísticas actuales, como el cine, el cómic, etc.; o bien se recrea en una serie de celebraciones multitudinarias en torno a la muerte y a los difuntos, convertidas en auténticas fiestas populares rodeadas de un simbolismo cuya raíz no siempre es evidente. Y por eso existe toda una gama de supersticiones y creencias populares, dirigidas bien a facilitar al difunto el cruce de esa frontera que lleva de lo real a lo desconocido, o bien a evitar que los “espíritus malignos” realicen el viaje inverso.

UTOPIÁS

Todas las utopías contienen algo de fantasía, pero, a diferencia de las leyendas y seres imposibles, las utopías son proyecciones del futuro que la mayoría de las veces tienen o han pretendido tener una base científica. Evidentemente, de lo que pudiera considerarse científico en cada momento. Y la utopía por excelencia es, sin duda, el deseo de alcanzar la inmortalidad. Independientemente de las concreciones más metafóricas que pudieran darse a este concepto, nos referimos aquí a una inmortalidad física y material de la persona, entendida íntegramente tanto en su dimensión corporal como intelectual o espiritual. Esta búsqueda tiene una larga trayectoria histórica, pero sigue estando de permanente actualidad. Nuestra utopía ya no está canalizada a través de la búsqueda del Santo Grial o de la Piedra Filosofal, sino de los avances médicos y tecnológicos.

Posiblemente, nuestras expectativas de longevidad y plenitud física harían las delicias de quienes se afanaron en otras épocas por la búsqueda de la eterna juventud, pero ya no nos conformamos con eso. Hoy se habla explícitamente de la posibilidad científica de alcanzar la

inmortalidad o de prolongar indefinidamente la vida de una persona gracias a procesos de renovación biotecnológicos. Todo ello nos sume en un mar de nuevas expectativas, pero también de debates éticos acerca de unas implicaciones que alcanzarían incluso al propio concepto de vida humana.



HERIOTZA.
ANTE LA MUERTE

San Telmo Museoa

CATÁLOGO

Se ha publicado, asimismo, el catálogo de esta exposición que contiene textos de J.Á. Achón; Lourdes Herrasti y Francisco Etxeberria; Juanjo Madariaga; Iñaki Olaizola; Alfonso Pérez-Agote; y Arantza Etxeberria.

243 pág.
21 x 24 cm.
20 euro

ACTIVIDADES

Durante el tiempo que dure la exposición se llevarán a cabo una serie de actividades relacionadas con la temática, que brindarán la posibilidad trabajar diferentes aspectos a través de charlas, mesas redondas, visitas y talleres dirigidos a diferentes públicos. Hemos trabajado con asociaciones y expertos/as para confeccionar esta programación.

También se llevarán a cabo talleres de artista para abordar el tema de la muerte desde la creatividad.

Asimismo, se realiza una propuesta didáctica para centros escolares, que pueden realizar visitas y visitas-taller, así como solicitar el uso de la maleta didáctica creada para esta exposición.

“Heriotza egunerokoa...” maleta didáctica

Hemos preparado una maleta didáctica con una guía educativa para el profesorado y diversos recursos para poder reflexionar sobre la muerte. La maleta la podrá utilizar el profesorado para hacer la visita a la exposición por su cuenta o con ayuda de un/a educador/a del museo.

Para poder realizar este viaje entre la vida y la muerte tendremos como compañero/a de viaje diversas fotos de objetos que forman parte de la exposición, así como postales, muñecos, libro de poemas, cromos, juegos, etc.

En la guía del profesorado se prevén actividades para hacer en el centro antes y después de venir al museo.

Durante el mes de junio, en el taller de educación, se mostrarán los resultados de los trabajos realizados.

PROGRAMAZIO OSOA / PROGRAMACIÓN COMPLETA

HELDUEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK / ACTIVIDADES DIRIGIDAS A PÚBLICO ADULTO

-Martxoak 13, asteazkena / Miércoles, 13 de marzo

Mahai ingurua / Mesa redonda: **Diálogo entre religiones**

Maya Amrane (islama / islam), **Alistair Baird** (budismoa / budismo), **Marije Goikoetxea** (katolizismoa / catolicismo). Mod: **Gorka Urrutia Asua**, Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria / director Instituto de Derechos Humanos.

Gizakiak heriotzari aurre egiteko baliatu dituen eta baliatzen dituen jarrerak mugak eta existitzen diren kosmoikuspegi guztiak gainditzen dituzten antzekotasunak eta desberdintasunak dituzte.

Las actitudes con las que el ser humano se ha enfrentado y se enfrenta al fenómeno de la muerte tienen semejanzas y diferencias que trascienden las fronteras y las diversas cosmovisiones existentes.

19:00 | Gazt. / Cast. | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

-Martxoak 15, ostirala / Viernes, 15 de marzo

Death Cafe: **Hablemos de la muerte**

Heriotzari eta horri lotutako prozesuari buruz libreki eta besteen konpainiaz hitz egiteko topaketa dugu Death Cafe, kafe/te bat eta bizkotxo bat aurrean ditugula. Heriotzaren kontzientzia soziala hainbat ikuspuntutatik sustatzea da helburua, bizitza balioesteko eta heriotzari buruz hitz egiteak dakarren tabua hausteko.

Death Cafe es un encuentro para hablar libremente de la muerte y su proceso en compañía frente a un café/te y un bizcocho. El objetivo es fomentar la conciencia social de la muerte desde varios puntos de vista para valorar la vida y romper el tabú que supone hablar de ella.

19:00 – 20:30 | Gazt. / Cast. | Dohainik. Leku kopuru mugatua. Izen-ematearekin / Gratuito.

Plazas limitadas. Inscripción previa: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561

Antolatzailea / Organiza: Ssn Telmo Museoa

Laguntzailea / Colabora: Bidegin Elkartea

-Martxoak 21, osteguna / Jueves, 21 de marzo

Hitzaldia / Conferencia: **Morirse y morir**

Javier Sádaba, filosofoa / filósofo. Mod.: **Javier Echeverría**, filosofoa / filósofo

Heriotzari buruzko hitzaldia, hainbat gai jorratuko dituena: bizitza bera, Adimen Artifiziala, mina, eutanasia, beldurra...

Una charla en torno a la muerte, en la que se abordarán diversos aspectos: la propia vida, la Inteligencia Artificial, el dolor, la eutanasia, el miedo...

19:00 | Gazt. / Cast. | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

Martxoak 22, ostirala / Viernes, 22 de marzo

Bideo-forum / Video-forum: **Aulki hutsak** (2013), Iñaki Peña.

Iñaki Peña, Izaskun Andonegi (Bidegin)

Maite dugun norbait hiltzen denean, nola egin aurre? Aulki hutsak dokumentalak heriotzaz, doluaz eta itxaropenaz hitz egiten digu. Proiektzioaren ondoren Iñaki Peñak, zuzendariak, Bidegin Elkarteke Izaskun Andonegi izango du solaskide.

Cuando muere alguien a quien amamos, ¿cómo afrontamos esta circunstancia? El documental "Aulki hutsak" nos habla de la muerte, del duelo y de la esperanza. Iñaki Peña, su director, e Izaskun Andonegi, de la Asociación Bidegin, dinamizarán una tertulia tras la proyección.

Ekitaldi aretoa / 18:00 / Proiektzioa euskaraz gaztelaniazko azpigituluekin. Solasaldia gazteleraz / Sarrera librea lekuak bete arte.

Salón de actos / 18:00 / Proyección en euskara con subtítulos en castellano. Tertulia en castellano / Entrada libre hasta completar aforo.

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa

Laguntzailea / Colabora: Bidegin

-Martxoak 28, osteguna / Jueves, 28 de marzo

Zeharkako begiradak / En primera persona: José Ángel Achón, erakusketaren komisariokideak bere ikuspegi pertsonala eskainiko digu bisita gidatu berezi honetan / Achón, co-comisario de la exposición, ofrecerá su visión personal en esta visita.

18.00 | Gazt. / Cast. | Dohainik, izen-ematearekin / Gratuita, con inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561

-Martxoak 29, ostirala / Viernes, 29 de marzo

Death Cafe: Hitz egin dezagun heriotzaz

Heriotzari eta horri lotutako prozesuari buruz libreki eta besteen konpainiaz hitz egiteko topaketa dugu Death Cafe, kafe/te bat eta bizkotxo bat aurrean ditugula. Heriotzaren kontzientzia soziala hainbat ikuspuntutatik sustatzea da helburua, bizitza balioesteko eta heriotzari buruz hitz egiteak dakarren tabua hausteko.

Death Cafe es un encuentro para hablar libremente de la muerte y su proceso en compañía frente a un café/te y un bizcocho. El objetivo es fomentar la conciencia social de la muerte desde varios puntos de vista para valorar la vida y romper el tabú que supone hablar de ella.

19:00 – 20:30 | Eusk. | Leku kopuru mugatua. Izen-ematearekin / Plazas limitadas. Inscripción previa: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561.

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa
Laguntzailea / Colabora: Bidegin Elkartea

-Martxoak 30, larunbata / Sábado, 30 de marzo

Dolugelan II. Jardunaldia / II. Jornada Dolugelan

Heriotzaren inguruko gogoeta-jardunaldia orientazioak eta balibide didaktiko praktikoak eskaintzeko dolu-prozesuetan hezkuntza-jarduna izateko. Irakasleentzako / Jornada de reflexión en torno a la muerte para ofrecer orientaciones y recursos didácticos prácticos para una actuación educativa en procesos de duelo. Dirigido a docentes.

9:30-13:30

La muerte: ¿Imperativo educativo o tabú? **Mar Cortina**, Psikopedagogo / Psicopedagoga.

El duelo en la infancia y en la adolescencia. **Mila Arce**, Osasun Mentaleko erizaina / enfermera de Salud Mental.

Orientaciones para una actuación educativa en procesos de duelo. Bideginek egindako gidaliburuaren aurkezpena, eta arratsalde, irakasleei zuzendutako tailer praktikoa / Presentación de la guía elaborada por Bidegin y por la tarde taller práctico dirigido a docentes. **Txema Ormazabal, Izaskun Andonegi**, Bidegin Elkartea.

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa
Laguntzailea / Colabora: Donostiako Berritzegunea, Bidegin Elkartea

15:30-19:30

Tailerra / Taller: **Acercamiento emocional a la propia muerte.** **Mar Cortina**, Psikopedagogo / Psicopedagoga.

Norbait beste pertsona baten bizitza amaieragatik kezkatuta dagoenean, beharrezko da heriotzari aurrez aurre begiratzea. Tailer honetan talde dinamikak erabiliko ditugu, modu abegitsu eta gozoan gerturatze emozional hau lantzeko. / Cuando alguien se inquieta sobre el final de la vida de otras personas es necesario mirar a la muerte de frente. En este taller utilizaremos determinadas dinámicas de grupo para, de forma suave y respetuosa, poder trabajar este acercamiento emocional.

Ekitaldi aretoa / Salón de actos | Gazt. / Cast. | Izen-ematea / Inscripción:
<http://g01.berritzeguneak.net> (Lehentasuna irakasleek / Prioridad profesorado)

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa
Laguntzailea / Colabora: Donostiako Berritzegunea, Bidegin Elkartea

-Apirilak 4, osteguna / Jueves, 4 de abril

Mahai ingurua / Mesa redonda: **Comunidades compasivas: creando entornos y personas compasivas con las personas al final de vida**

Maidier Grajales, New Health Foundation-eko iparraldeko Egoitzako zuzendaria / directora Sede Norte de New Health Foundation; **Naomi Hasson**, erizaina eta proiektuaren arduraduna / enfermera y responsable del proyecto; **Iñaki Peña**, mediku internista eta talde sustatzaileko

kidea / médico internista y miembro del grupo promotor. Mod.: **Maider Urtaran**, *Project Leader, Deusto Business School Health*.

Aldaketa demografiko, epidemiologiko eta sozialak paradigma-aldaketa eragiten ari dira dependentzia-egoeran eta bizitzaren amaierako egoeran dauden pertsona eta familien arretan. Dependentzia duten pertsonak eta bizitzaren amaieran daudenak babestu, eta haien zainketak eta premiak puntu nagusizat hartzen dituen komunitate bat sortzea posible da eta horren adibide dira jada hainbat esperientzia.

Los cambios demográficos, epidemiológicos y sociales están propiciando un cambio de paradigma en la atención a las personas y familias en situaciones de dependencia y final de vida. Crear una comunidad que apoye y se vuelque con los cuidados y necesidades de las personas dependientes y al final de vida es posible y ya hay experiencias que son ejemplo de esto.

19:00 | Gazt. / Cast. | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa

Laguntzailea / Colabora: Deusto Business School Health. Deustuko Unibertsitatea.

-Apirilak 5, ostirala / Viernes, 5 de abril

Zeharkako begiradak / En primera persona: Juan Madariaga. NUPeko Historia Garaikideko irakasle titullarrak bere ikuspegi pertsonala eskainiko digu bisita gidatu berezi honetan. / Madariaga, Profesor titular de Historia Contemporánea en la UPNA, ofrecerá su visión personal en esta visita.

18.00 | Eusk. | Dohainik, izen-ematearekin / Gratuita, con inscripción: stm_erresebak@donostia.eus, 943-481561

-Apirilak 12, ostirala / Viernes, 12 de abril

Ankulegi XXII. Antropologia Jardunaldia / XXII Jornada de Antropología Ankulegi: **La antropología ante la muerte**

<https://www.ankulegi.org/xxii-jornada-de-antropologia-ankulegi-2019/>

Antolatzailea / Organiza: Ankulegi, UPV / EHU

Laguntzailea / Colabora: San Telmo Museoa

-Apirilak 27 larunbata / Sábado, 27 de abril

Errezitaldia / Recital: **HERIO ETA BESTE ÑABARDURA BATZUK. (Kantua, harpa eta poesia hilartitz osagabe baterako) / MUERTE Y OTROS PORMENORES (Canto, arpa y poesía para un epítafio incompleto)**

Ana Elorza (soprano), Francesca Romana di Nicola (harpa/arpa) eta Juan Kruz Igerabide (testua/texto).

Gai klasikoak eta herrikoiak eskainiko dituzte zenbait ikuspegitatik: tragedia, galera, dolua, alaitasun beltza, umorea. Musika instrumentala, kantua eta errezitazioa txandakatuko dituzte.

Interpretarán temas clásicos y populares desde diversos ángulos: la tragedia, la pérdida, el duelo, la alegría macabra, el humor. Combinarán música instrumental, canto y recitación.

Eliza / Iglesia | 19:30 | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo | Jarduera eleanitza / Actividad multilingüe

-Maiatzak 9, osteguna / Jueves, 9 de mayo

Zeharkako begiradak / En primera persona: Javier Viver, artista

Erakusketan lan bat ikusgai duen artista honek bere ikuspegi pertsonala eskainiko digu bisita gidatu berezi honetan / Viver, artista que presenta una de sus obras en la exposición, ofrecerá su visión personal en esta visita.

18.00 | Gazt. / Cast. | Dohainik, izen-ematearekin / Gratuita, con inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561

-Maiatzak 10, ostirala / Viernes, 10 de mayo

Mahai ingurua / Mesa redonda: **Una realidad silenciada. El suicidio en los adolescentes.**

Eva Bilbao, erizaina, Biziraun Elkarteko lehendakaria / enfermera, presidenta de la Asociación Biziraun; **Agustín Erkizia**, EHUko errektoreordea, Biziraun Elkarteko sortzaileetako bat / vicerrector y cofundador de Biziraun; **Cristina Blanco**, soziologoa, Aidatu Elkarteko lehendakaria / socióloga, presidenta de Aidatu; dinam.: **I. Andonegi**, zainketa aringarrien erizaina, dolu eta trauma psikoterapeuta / enfermera paliativista, psicoterapeuta de duelo y trauma. Bidegin.

Nerabezaroko suizidioa ez da sozialki errealitate bat bezala ikusten. Haatik, heriotza eragiten duen bigarren kausa bihurtu da 14 urtetik gorako gazteen artean. Suizidioaren prebentzioan eta postbentzioan inplikaturako hiru elkarterekin –BIDEGIN, BIZIRAUN eta AIDATU–, osasun publikoko arazo horri ekingo diogu, eta jarraibide orientatiboak eta ezagutzak partekatuko ditugu gazteen artean hurre-hurreko seinaleak detektatzeari buruz, kasu horietan doluari nola aurre egin behar zaion finkatzeari buruz, nora joan behar den erabakitzeari buruz, eta abar.

El suicidio en la adolescencia no se visualiza socialmente como una realidad. Sin embargo, se ha convertido en la segunda causa de muerte en jóvenes a partir de los 14 años. En colaboración con tres asociaciones implicadas en la prevención y postvención del suicidio, BIDEGIN, BIZIRAUN y AIDATU, abordaremos esta problemática de Salud Pública y compartiremos pautas orientativas y conocimientos sobre cómo detectar señales de alerta inminente en los jóvenes, cómo afrontar el duelo en estos casos, a dónde dirigirse, etc.

Ekitaldi aretoa / Salón de actos | 18:00 | Gazt. / Cast. | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa

Laguntzailea / Colabora: Bidegin, Biziraun, Aidatu

-Maiatzak 11, larunbata / Sábado, 11 de mayo

Arteterapia tailerra / Taller de arteterapia: **Cuando las palabras no son suficiente**

Izaskun Andonegi, zainketa aringarrien erizaina eta dolu eta traumaren psikoterapeuta / enfermera paliativista y psicoterapeuta de duelo y trauma. Bidegin Elkarte.

Izaki maitatu bat hil delako doluan dauden helduentzako tailerra. Sufrimendua drainatzea ahalbidetzen du arteterapiak eta norberak bere buruarekin adiskidetzearen aldeko pauso bat ematea, baita bizitzen ari garena ulertzea ere, klabeak atereaz esperientzia lantzen eta dolu-prozesua sendatzen jarraitzeko.

Taller para personas en duelo por fallecimiento de un ser querido. La arteterapia permite drenar el sufrimiento y dar paso a una reconciliación con uno mismo y comprender lo que estamos viviendo, dándonos claves para continuar elaborando la experiencia y sanando el proceso de duelo.

Hezkuntza tailerra / Taller de educación | 10:00-13:00 | Gazt. / Cast. | Izen-ematea / Inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561 (Lehentasuna irakaslegoak / Prioridad profesorado)

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa
Laguntzailea / Colabora: Bidegin Elkarte

-Maiatzak 14, asteartea / Martes, 14 de mayo:

Argazki-liburu aurkezpena / Presentación de fotolibro: **L'amoureuse, Anne de Gelas**

Bere bikotekide eta bere semearen aita bapatean galtzearen ondoriozko prozesuaren zati gisa sortutako fotoliburu hau aurkeztuko du Anne de Gelas argazkilariak. Indarberritzeaz eta bizitzen jarraitzeaz hitz egiten du bere lanak, mina eta absentzia gaindituta aurrera ateratzeaz.

La fotógrafa Anne de Gelas presentará este fotolibro creado como parte del proceso de duelo ante la pérdida repentina de su pareja y padre de su hijo. Su trabajo habla de cómo sacar fuerzas renovadas, seguir viviendo, a pesar del dolor y de la ausencia.

Ekitaldi Aretoa / Salón de actos | 19:00 | Frantsesez, euskara eta gazelaniazko aldi bereko itzulpenarekin / En francés con traducción simultánea a euskera y castellano | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

-Maiatzak 16, osteguna / Jueves, 16 de mayo

Mahai ingurua / Mesa redonda: **¿Cómo nos comportamos ante la muerte a comienzos del siglo XXI?**

Iñaki Olaizola, Antropologiako doktorea / doctor en Antropología; **Mabel Marijuan**, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Bioetika irakaslea / profesora de bioética de la Facultad de Medicina y Enfermería. UPV/EHU; **Iñaki Saralegi**, medikua eta Aurretiazko Borondateen Dokumentua proiektuaren koordinatzailea Euskadin / médico y coordinador del Proyecto de Voluntades Anticipadas en Euskadi. Mod.: **Concha Castells**, EAEko DMD-ko (Derecho a

morir dignamente) lehendakaria / presidenta de DMD (Derecho a morir dignamente) de la CAV.

Gure gizartean heriotzak tabu izaten jarraitzen badu ere, badirudi zerbait mugitzen ari dela eta gaia sarriago agertzen ari dela agenda politiko eta mediatikoan: aurretiazko borondateak, heriotza duinaren legea, eutanasaren legea, lagundutako suizidioa... gero eta gehiago entzuten ditugun terminoak dira.

A pesar del tabú que sigue siendo la muerte en nuestra sociedad, parece que algo se va moviendo y que este tema va apareciendo con más frecuencia en la agenda política y mediática: voluntades anticipadas, ley de muerte digna, ley de eutanasia, suicidio asistido... son términos que cada vez escuchamos más.

19:00 | Gazt. / Cast. | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo
Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa
Laguntzailea / Colabora: DMD, Derecho a Morir Dignamente

-Maiatzak 23, osteguna / Jueves, 23 de mayo

Mahai ingurua / Mesa redonda: *¿Futuro sin envejecimiento ni muerte? Conversación entre ciencia y filosofía*

Antonio Diéguez, Malagako Unibertsitateko Logika eta Zientziaren Filosofiako katedraduna / Catedrático de Lógica y Filosofía de la Ciencia de la Universidad de Málaga; **María Blasco**, Centro Nacional de Investigaciones Oncológicas-eko zuzendaria / directora del Centro Nacional de Investigaciones Oncológicas (CNIO). Mod.: **Arantza Etxeberria**, EHUko Logika eta Zientziaren Filosofiaren Saileko zuzendaria / Directora del Departamento de Lógica y Filosofía de la Ciencia de la UPV.

Zahartzea eta zahartzeari lotutako gaitasunen galera saihestearekin hasten da hilezkortasunaren bilaketa. Zientziaren eta filosofiaren arteko elkarrizketa bat koordinatzen du Arantza Etxeberriak zientziaren eta teknologiaren aldetik zer motatako aurrerapausoak espero ditzakegun ulertzeko. María Blascoren eta haren taldearen ikerketak zahartzearen kausak aztertzen ditu, bereziki telomeroen laburtzea, eta horrek gaixotasunarekin duen harremana. Transhumanismoak heriotzarik gabeko etorkizun bati buruz egindako promesak aztertzeaz arduratzen da Antonio Diéguez filosofoa.

La búsqueda de la inmortalidad empieza por evitar el envejecimiento y la pérdida de facultades asociada al mismo. Arantza Etxeberria coordina una conversación entre la ciencia y la filosofía para entender qué tipo de avances podemos esperar de la ciencia y tecnología. La investigación de María Blasco y su grupo trata sobre las causas del envejecimiento, en especial el acortamiento de los telómeros, y su relación con las enfermedades. El filósofo Antonio Diéguez se ocupa de analizar las promesas elaboradas por el transhumanismo sobre un futuro sin muerte.

19:00 | Gazt. / Cast. | Sarrera librea lekuak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

Antolatzailea / Organiza: San Telmo Museoa
Laguntzailea / Colabora: UPV/EHU

FAMILIEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK / ACTIVIDADES DIRIGIDAS A PÚBLICO FAMILIAR

-Martxoak 16, 23 eta 30, larunbatak / Sábados 16, 23 y 30 de marzo
Artista tailerrak / Talleres de artista

Martxoak 16 eta martxoak 23, **Nagore Amenabarro**

Piztu/ itzali /piztu

Itzalen beharra dugu argiaz jabetzeko, argiarena ezkutukoa atzemateko.

Klik: piztu/ itzali / piztu

Lehenengo tailerrean ezkutukoa landuko dugu, hasiera batean ezin ikus daitekeena. Bigarrenenean efimerotasuna landuko dugu, eskultura modular efimero bat eta honekin argi-itzalekin jokatu dugu.

En el primer taller trabajaremos lo oculto, lo que de entrada no se ve. En el segundo trabajaremos lo efímero, una escultura modular efímera que jugará con luces y sombras.

Martxoak 30, **Ane Rodríguez Zaitegi eta Maider Aldasoro**

Desagertu / Berpiztu / Gorputz ezberdin batean esnatu / Leku ezberdin batean agertu

Gorputz eta espazio berriak eraikitzeko eta hauek bizitzeko era berriak imajinatzeko tailerra da hau. Mutaziorako tailerra dugu. Ezaguna baztertu eta egite forma berriak desioaren bitartez aktibatu.

Este es un taller para imaginar y construir un nuevo cuerpo, un nuevo espacio, una nueva forma de habitar. Este es un taller para desplazar lo conocido, un taller de mutación.

17:00- 19:00 | Eusk. | 5 € / familia

-Apirilak, 6 larunbata / Sábado, 6 de abril

Familia marrazkilariak: heriotza ipuinaren bitartez

Naroa Martínez, pedagogo / pedagoga

Hurrekin familia giroan heriotzaz hitz egiteko tailerra. Helburua gai honi buruz hitz egiteko beldurra kentzea da. Honetarako, jolasak, ipuinaren irakurketa eta marrazkiak eta filma ikusiko dugu.

Taller para hablar en un ambiente familiar sobre la muerte, que tiene como objetivo superar el miedo a abordar este tema, utilizando para ello el juego, cuentos, dibujos y una película.

Ekitaldi aretoa / Salón de Actos | 10:00-13:00 | Eusk. | 4-7 urte/ años | Izen-ematearekin / Inscripción previa: stm_erresebak@donostia.eus, 943-481561

BISITA GIDATUAK / VISITAS GUIADAS

- Bisita programatuak astearteetan eta larunbatetan / Visitas guiadas programadas los martes y los sábados: 11:00 eusk., 18:00 cast.. Dohainik, museoko sarrerarekin / Gratuitas, con la entrada al museo.

- Taldeentzako bisita gidatuak hitzartu daitezke / Visitas para grupos previa reserva: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561

- Bisita gidatuak eta bisita-tailerrak eskolentzako LH, DBH, Batxilergoa / Visitas guiadas y visitas-taller para escuelas (EP, ESO, Bachillerato).

Maleta didaktikoa eskuragarri bisita bere kabuz egiteko. Irakaslearen gida eta ikaslearentzako materialak jarduerak eskolan eta museoan egiteko. / Se puede solicitar la maleta didáctica, con guía para el profesorado y material para realizar actividades en el centro escolar y en el museo